

Zoramena

**Maider IANTZI
GOIENETXE**

Lagun batek kontatu zigun bidaia batetik bueltan zetorrela ia hegazkina galdu zuela, aireportuan hagitz urduri jarri zela, hagitz-hagitz, hainbertze, non erotzat hartu baitzuten eta ez baitzioten abioian sartzen utzi nahi. Igotzea lortu eta eseri zenean, negarrez lehertu zen.

Irria atera zitzaidan. Zenbat identifikatu nintzen, eta zenbat eskertu nion zoramenaren aldarri hori, gure onetik atera gaitzkeela eta ez dela deus gertatzen defendatu zuelako. Orain hemen irakurtzen nauzue, eta lasaia dirudit, zentzuduna. Baina duela minutu gutxi ero bat nintzen. Hola da eta ongi dago. Neurritasuna gal dezaket.

Dena galdara txar bategatik. Egia da ez naizela harritu, kontu teknikoek urduri jarri ohi nautelako. Agudo galtzen dut

pazientzia. Eta aseguruari deitu, eta musika itsusi bat luze aditu eta gero, tar-tean “*nuestros operadores están ocupados*” sail batekin eta bertze hainbertze “*manténgase a la espera*”-rekin, robotari botoiak sakatuz zer nahi dudanean adierazi eta azkenean pertsona batek hartu didanean, eta alai zegoenean gainera, egin dizkidan galdera guztiei erantzun eta atzo etorri zen teknikariak “*no hay fallo*” idatzia utzi diela bota didanean, zur eta lur gelditu naiz. Niri hondatua zegoela erran zidan. Eztabaidan hasi gara, gero eta zakarrago, eta aseguruari baja emanen diodala erranez moztu diot.

Bero-bero, galdararen enpresara deitu dut. Langile jatorra tokatu zait. Ahots hautsiarekin esplikatu diot galdara zoratatu zaigula, zero azpitik 30 gradu markatzen dituela, ura eskapatzen zaiola, ez

dugula ez berogailu ez ur berorik, eta deskonektatua dugula etorri zen lehenengo teknikariak, aseguruakoak ez aurrekoak, erran zigulako itzaltzeko gehiago hondatu baino lehen, eta ea orain hirugarren teknikari bat pasa daitekeen. Patxada eman dit, eta libre dagoen lehendabiziko teknikaria etorriko dela agindu dit. “*Que pases buen día*”. Eta nik “*igualmente*”, ia negarrez.

Moztu eta pentsatu dut: zergatik jarri naiz horrela? Zintzurrean erredura, bihotz taupada azkarrek, ezinegona... Sintoma ezagunak ditut, eta seguru berri agertuko direla. Jada ongi nago. Las-ter etorriko da teknikari berria, eta galdara konponduko du. Aseguruarena aipatuko diot eta, bere gain hartu behar duela erraten badit, indartsu nagoen une batean egingen diot aurre. •

Tragikomedia

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

2024a badoa abiada bizian eta hobe dugu lehenbailehen hel-du, bestela arriskua dago norberarena baino ez den bizitza beste norbaitek gidatzeko, eta orduan bai komeriak...

Komediatik badu galanki San Sebastian eguneko danborradak, tragedia galanta izan zena jai giroan ospatzen dugunean. Nago gaur-gaurkoz danbor harrabotsen goreneko ospakizuna ahanzturak eragindako tragikomedia ariketa arin bat dela. Danbor hotsek, niri behinik behin, su eta tiro eraileen bu-rrunba didate adierazten eta halakoe-

tan, guda orotan lez, irabazleak eta gal-tzaileak izaten dira; eta nago Donostia-ko herriak, eta are gutxiago herritarrek, nekez zutela ospatzeko ezer irabazi.

San Sebastian egunak, jai egunaz gain (Donostian egiten baitut lan), kol-pean danborrak eta angulak dakarzkiruditeriara. Lehenak napoleoniko eta portuges-ingeles-espainol soldadua tiro hots eta odol amaraunean borrokan Bretxa parean, eta donostiarrak kaltetuenak, milaka eraildako, bortxa-tu... eta guztia sugarretan erreta. Bigarrenak tradizio modernoan bigun justifikatutako eszentrikotasun paregabea.

Biak ala biak dira San Sebastian egun handiaren musikaren parte, baina abestiek diskurtsoek eta aginduek baino gehiago dezakete herritarra manipulatu. Izan ere, abesti popularra ez da beti herritarrengandik sortua, aitzitik, izan liteke manu-militari olatuz olatu ziztatua pozoitzeraino, mina eta malkoak ordezkatzera baino ospakizuneko danbor-hotsez.

Jakina da memoriarik gabekoek aukera gehiago dutela zoriontsu izateko eta, noski, izan gaitzen zoriontsu, baina ez edozein preziotan.

“Sebastian bat bada zeruan...”. •